

**ZUMAIA LANTZEN E.A-REN
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

52ZK-KO AKTA

ZUMAIA LANTZEN E.Aren Administrazio Kontseilua ZUMAIAn biltzen da, mila bederatzehun eta laurogeita hemezortziko urriaren 26an.

BERTARATUAK

Lehendakaria: Rikardo PEÑA KINTELA
Batzarkideak: Felipe GUTIERREZ SERVAN
Migel Anjel APERRIBAI ZARAUTZ
Pedro J. URIBETXE BERRIA ETXE BERRIA
Asier ESNAL ALBIZU

Idazkaria: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

Luziano Paguegi, udal arkitektoa eta Jose Ramon Estomba, ESARBE E.Ako ordezkaria ere, bilerara etorri dira.

EGUNEKO AZTERGAIAK

1.- AURREKO KONTSEILUETAKO AKTEN IRAKURKETA ETA ONESPENA (49, 50 eta 51 zenbakietako aktak).

Irakurri eta aipatu ziren 98/09/28ko 49zk-ko akta; 98/10/01eko 50zk-ko akta eta 98/10/9ko 51zk-ko akta eta aho batez eta zuzenketarik egin gabe, onartuak izan ziren.

2.- OBREN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Aipatzeko moduko gora-beherarik gabe.

21. HGAn eta 3. Sektorean, azken ukituak ematen eta likidatzeko. Martxa normalean 32.HGAn.

3.- 21. HGA-KO B-3 LURZATIARI BURUZKO HIRIGINTZAKO HITZARMENA ETA HIRIGINTZAKO KARGA KENTZEA.

Aurrekoen irizpide berdinekin egin den HITZARMEN hau aipatzen da. Lurzati honi (959.094 pezeta BEZa barne) egozgarria den zatiari buruzko Eranskin bat ere barneratzen du, B-1, B-2, B-3 eta B-4 LURZATIEN ARTEAN AMANKOMUNEAN

DUTEN IHARDUERArena, 1998ko abenduaren 20a baino lehen hori ordaintzea aurreikusiz.

Kontseiluak erabakitzen du, horren onarpena proposatzea Udalbatzako Plenoari, bide batez, alkateari eta Zumaia Lantzen E. Ako lehendakariari, sinatzeko ahalmena emanaz.

Era berean, Plenoari proposatzea, aipaturiko lurzatiak duen hirigintzako karga kentzea, HIRIGINTZAKO HITZARMENEAN jasotako baldintza guztiak bete eta gero.

4.-32.HGAn (GOROSTIAGA) SALDUTAKO LURZATIEN HIRIGINTZAKO KARGAK KENTZEA.

- a) 32. HGaren Hirigintzako Kudeaketarako sistema LANKIDETZAKoa da eta hori dela eta, Udala da hirigintzaren arduraduna eta honek, ZUMAIA LANTZEN Elkartearen bidez gauzatzen du.

Zumaia Lantzen E.Ako lurzatiaren salmenta industrial interesatuei, urbanizatutako lurzoru gisa gauzatzen ari da eta horren ondorioz, iadanik egindako obraren zatia eta oraindik egin ez dena kobratzen da.

Era honetan, hirigintza prozesua bermatzen da.

- b) **Urbanizatutako lurzatiaren** erosleentzat (Zumaia Lantzen E.Aren konturako urbanizazioarekin), normala eta komenigarria gertatzen da, salerosketako eskrituran lurzatiari dagokien **hirigintzako karga** ez azaltzea. Aldez aurretik likidatuko ez balitz, kontraesan bat emango litzateke, hau da, Jabetza Erregistroan azaltzea, benetan ordainduta dagoenean.
- c) Azaldutakoagatik, komeni da Udal Plenoari proposatzea, **hirigintzako karga guztiak kentzea edo baliogabetzea**, A.1.1; B.1; B.2; A.2.2.; A.2.3; A.2.4; A.3.2. eta A.6.1. (A. SEI. BAT) lurzatiaren behin-betiko likidazio gisa.

Azkenengo lurzati hau (A.6.1.) A. 6 lurzatiaren egindako bereizketaren ondorioa izango da, guztira 8.867m^2 tako azalera duelarik, hauetatik 8.000m^2 eraikigarriak izanik eta honen hirigintzako karga Exekuzio Unitatearen guztiarekiko %8,95ekoa, horren ondorioz, **A.6 finkaren gainerakoa %6,08ko kargarekin geratuz** ($8,95+6,08 = \%15,3$), zati bakoitzaren azalera eraikigarriaren proportzionala.

Lehen adierazitako bereizketa egin eta gero, A-6 finkaren behin-behineko likidazioaren saldoko zenbatekoa 41.436.302 pezetetan finkatuko litzateke (BEZa barne).

Kontseiluak erabakitzen du, Plenoari proposatzea aurreko c) atalean adierazitakoa eta alkate jaunari ahalmena eman diezaiola, hori bideratu eta formalizatzeko.

5.- 32. HGA-KO (Gorostiaga) A-3 LURZATIAREN HIRIGINTZA OSATZEKO KOMENIGARRITASUNA ETA ADJUDIKAZIOA, HALA BADAGOKIO.

Saltzeko konpromisoak eta iadanik eginda dauden lurzatiaren salmentak, aholkatzen dute, epe motzean 32. HGAn urbanizatzeko dagoen eremua haunditzea.

Hasiera batean eta lehiaketa bidez adjudikatutako hirigintzako lanak, Arearen Mendebaldera hedatzen ziren luzapenera arte, PROVASari adjudikatutako Birzatiaketako A-3-1 lurzatiaren Ekialdeko mugarekiko Ipar-Hegoa norabidean nabariki.

Proposatzen da, hirigintza lanak Ekialderantz jarraitzea Proiektuaren plataformabidea osatu arte, A-3 eta A-4 lurzatiaren artean.

Lehenengo hurbilketa batean, obra gehikuntza honen balioa 40 milioi pezetakoa izango da, 98/05/25eko Kontseiluan adjudikatutako aurrekontuari buruzko %25-30eko gehikuntza dakarrelarik.

Kontseiluak, deskribatu den adjudikatutako obra haunditzea onartzen du, beti ere, UBIRI E.M. enpresa adjudikaziodunak, egitea onartzen badu, lehiaketako ale bakoitzeko prezio berdinekin edo beherantzako eskaintzarekin, Gerentziari ahalmena emanaz, erabaki honen ondoriozko konpromisoak formalizatzeko.

6.- BESTE ZENBAIT.

6.1.- Errepide-saihesbidearen (Foru Diputazioa) Proiektua ikusten eta irtenbideak aztertzen ari dira, proiektu honek herrian, oro har, eragin handia duelarik eta bereziki 3. Sektorean, herriko Hegoaldean eta Ekialdean trenbide ondoan, Basusta eremurako etorkizuneko sarbideetan, egin daitezkeen sarbide orokorretan eta /edo Narrondo ibai gaineko zubietan e. a.

Luziano Paguegi eta Jose Ramon Estomba jaunek proposatzen dute, Diputazioak bidalitako informazio topografikoaz baliatuz, inguruko eremuetara hedatzea, etorkizunean saihesbidea izango denaren alde batera eta bestera, horrek ahalbidetuko duelarik bere eragina eta herriko hirigintza orokorra hobeto aztertzea.

Diputazioa erabiltzen ari den topografia MUGARRI O.K-ak egin zuen eta horigatik proposatzen da, hedatze lanak erakunde honek egitea.

Azalera osoak, gutxi gora-behera 20 Hektarea ditu.

Kontseiluak proposamena ontzat ematen du.

6.2.- Jose Ramon Estombak adierazten du, Azpeitiko Kimu bat enpresari adjudikatu zaizkiola, 3.Sektoreko lehenengo faseko lorazaintza lanak, Zuzendaritza Teknikoaren (SESTRA) proposamena jarraituz eta 98/09/23ko aurrekontuaren arabera, 1.799.740 pezetako balioa duelarik (BEZ barne).

Kontseiluak berretsi egiten du adierazitakoa, bide batez zehaztuz, adjudikaziodunak egin beharko duela hurrengo uda arteko mantenimendua.

6.3.- Jose M^a Elias, Birzaketaren egilearekin kontsultatuz, erabaki zen, Zumaiako AA.SS-etako 3. Sektoreko A-6 lurzatiari izendatutako lagapen, hirigintzako karga eta gainerako baldintzatzaileetan sakontzea, hori guztia, dagozkien jabe-eragileekin negoziatzeko asmoz.

6.4.- Aipatzen da, 32. HGako (Gorostiaga) A.1.4. lurzatian Pabiloiaren Oinarrizko Proiektuan, Pablo Borde arkitektoak egindako eraiketarako kostua altua dela eta komeni dela Exekuzio Proiektuan eta batez ere, benetako kostuan, aurrekontua doitzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera amaitutzat ematen da eta nik, idazkari honek, sinatu egiten dut, lehendakari jaunak ontzat eman ondoren.

O.E.
LEHENDAKARIA

IDAZKARIA